



BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren helburu nagusia, erosketa-esperientzia erabat eraldatzean oinarritzen da. Erosketa-orga tolesgarriak hobetzen ditugu, antolatzaile berritzaileekin eta jasotze-sistema batekin aldea markatuz, bereziki bezero eta publiko guztiari erosotasuna eta erraztasuna emateko diseinatuak. Edozeinentzat eskuragarri izan arren, bereziki adineko pertsonengan eta konplikazio fisikoak dituztenengan dago diseinatuta produktua.

Beraz, erosketa orga tolesgarri honek, edozein produktu edo objektu jartzeko edo ateratzeko hainbat apal edukiko ditu gehituta gure ideari esker. Apal hauek era erraz batean gauzak ordenatuta edukitzea ahalbidetuko du. Erosketa orga hauen apal edo atal bakoitzean, kreamilera bat egongo da, produktuak bertan sartzeko edota bertatik kentzeko. Horretaz gain, produktuaren beste ezaugarrietako bat, apala edozein momentutan tira egin ahalaz gorago ateratzeko ahalmena izango duela da, beste laguntza handi bat izango dena adinekoentzat bereziki, makurtzeko zailtasunak baitute gehienetan.

Tailer bat edukiko dugu, non erosketa orgei aipatutako hobekuntzak jarriko zaien. Salduko ditugun produktuak bide ezberdinen bidez salduko ditugu. Lehenik, bezeroengana heltzeko bide bat tailerrean izango da, fisikoki. Tailerrean bertan erosteko aukera egon arren, ez duenak nahi fisikoki erostea, online bidez ere aukera izango du, beraz, bezeroak gire produktua erosteko beste bide bat ere izango du. Gainera, webgune bat edukiko du enpresa honek, non enpresaren aurkezpena ageriko den, honen sare sozialak, mezua bidaltzeko aukera, edozein galdera mota egiteko aukera, eta azkenik, online bidez produktuak erosteko bidea. Bestalde, Tirapa beste enpresa batzuekin ere elkartuko da, esate baterako Eroski moduko enpresekin, honela, hauek gure produktuak salduko dituzte.

Gainera, produktua ekoizteko erabiliko ditugun materiala gure herriko burdindegitik hartutakoa izango da, hau da, beste denda txiki batzuen materiala aprobeztatuko dugu. Baita, bigarren eskuko materialarekin ekoiztiko ditugu produktuak.